

XEDAPENA, 2023KO EKAINAREN 21EKOA, OSATEK, S.A. ENPRESAKO ZUZENDARI KUDEATZAILEARENA, AGINTZEN DUENA OSATEK-EN WEBGUNEAN ETA CAMPO & OCHANDIANO ENPRESAREN WEBGUNEAN ARGITARATZEA IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAKO HUTSEN ZUZENKETA, MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAREN HURRENKERAN, LAN-LEGEPEKO LANGILE FINKO IZATEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ OSATEK-EN DESTINOA DUTEN IDAZKARIEN KATEGORIAN.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartu egin ziren OSATEKen destinoa duten lan-kontratu finkodun langileak idazkari kategorian merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2023ko ekainaren 20an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen OSATEKen, idazkariaren kategorian, lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesuko hautagaien behin-behineko zerrenda, merezimenduen puntuazioaren arabera.

Akats bat antzeman da argitaratutako merezimenduen puntuazio-hurrenkeraren arabera behin-behineko zerrendan, eta Sozietatea eratzeke Estatutuek pertsonalaren alorrean emandako ahalmenez baliatuz.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Izangaien puntuazioaren arabera behin-behineko zerrendako hutsen zuzenketa onartzea. Zerrenda hori xedapen honen eranskinean dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEKen webgunean (www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2023ko-enplegu-eskaintza/) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Bilbon, 2023ko ekainaren 21ean

Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz